steilas zibersteilas 13
steilasen informazio elektronikoa • 2022/12/29

EAEko IRAKASLEAK

2023 EPE: EZ-BAZTERTZAILEA ETA ARRUNTA

Dagoeneko deialdia argitaratu dute. Hemen esteka

- Izen-ematea: maiatzaren amaieran edo ekainean (merezimendu-leihaketaren EPEn hautatuen behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren).
- Izen-ematearekin batera, maiatzaren amaieran edo ekainean, Haur eta Lehen Hezkuntzako programazioak eta unitate didaktikoa entregatzeko epea zabalduko omen da. Gainontzeko kidegoen kasuan oraindik ez dute informazioa luzatu eta irailean aurkeztea baloratzen ari dira.
- Azterka idatzien balizko datak: Haur eta Lehen Hezkuntzan iraila-urrian eta Bigarren Hezkuntza zein Lanbide Heziketan 2024ko otsaila-martxoan (kidego txikietan zehaztasunik gabe)

***CURRICULUM:** egun indarrean dagoena Heziberri da. Oposizioei begira curriculum berria erabili beharko da (Hezigunean zirriborroak daude) eta otsailean-martxoan curriculum berriaren onarpena espero da. Lanean ez dauden hainbat ordezkok zirriborroak ikusteko aukera ez dutenez, esteka batean eskuragarri jarriko ditugu hurrengo egunetan.

OHARRA: Urtarrilaren 23ko astean EPE ez baztertzaile eta arrunteko deialdien hitzaldi informatibo irekiak antolatuko ditugu.

Heziketa Bereziko Hezitzaileak

Egonkortzeko salbuespenezko prozesua (merezimendu-lehiaketa) argitaratu dute. Hemen esteka

Ordezkapen guztiak (bajak izan ezik) abenduaren 23an bertan behera uztea eta abenduaren 5eko eta 19ko asteetan ordezkagunean beharrak ez ateratzea lotsagarria da. Hezkuntza Saila, lan-akordioa bete!!!!